

FRANTZIAKO IRAULTZA

F. Mitterrand presidenteak, Frantziako iraultzaren bigarren mendeurrena ospatzean, beste gauza askoren artean au be esan dau: «Iraultza onen frutu probetxugarriak kontuan izanik, ezin leike, orraitio, aaztu bear iraultza orren izenean egindako triskantzak, sarraskiak eta birinketak. Komenu da gauza negatibo orreek be gogoratzea, urrengoan olako ondorio txarrrik gertatu ez daiten».

Ez jako arrazoirik falta Mitterrand jaunari. Iraultzaren izenean, zenbat eta zenbat gizon-emakume masakratuak eta triskatuak! Zenbat gauza eder eta baliotsu austuta! Bistan dagoz oraindino, kultur eta arte maillan egindako kalte izugarriak. Ez dago Frantzian, esaterako, orduko katedralik ez eleizarik, iraultza orren lorrin tamalgarriak jasan ez dabenik. Zenbat gauza eder apurtuta edo erreta. Negar egitekoak dira kultur eta arte maillan egindako triskantzak. Baina penagarrienak bertan jasotako sarraskiak eta bortxakcriak. Batez be eleiztarren artean.

Iraultza eta Eleiza

Frantziako iraultza, asieran, ezan izan eleiz-aurkakoa. Frantziako egoera politikua, soziala eta ekonomikoa oso larriak ziran. Aldakuntza sakon baten preminan aurkitzen da erria. 1789. Batzar Nazionalean oneetako erabakiak artzen dira: giza eskubideak, erlijio-askatasuna, feudo-legeen desegitea, amarrenak ez ordaintzea. Eleizaren ondasunen nazionalizatzea eta abar. Ori bai, na-

zionalizatze orren truke, Estatuak leporatzen ditu Eleizaren gastuak. Erabaki oneek ontzat artzen dabez eleiz-gizonak. Eundik larogei eleiz-gizon Batzar Nazionalaren alde dago. Eleizaren eta Estatuaren arteko separaziñoa bera be, onartuko ebela ta nago. Frantziako iraultza ezan sortu Eleizaren aurka, ta Eleiza bera be ezan jarri iraultza orren aurka. Ta aurka jarriko da Iraultzaren elburu nagusiak aldatzen asi ziranean.

Terrore aldia

1791-1795. urtetan, Iraultzaren asmorik ederrenak pikutara doaz. Edo geienbat paperetan geratzen dira. Askatasunaren, Bardintasunaren eta Anaitasunaren eskubideak pozoituta. Geiengoen borondatea gitxiengoen eskuetan. Erriaren gurari ederrenak manipulaturta. Iraultzaille estremisten erruz, itzelezko triskantzak sortzen dira Frantziako Eleizan. Robespierre, Marat, Fouché izango dira estremiste orreen jaun eta jabe. Euron asmoa kristau balioak Frantzian zear ezereztea. Orretarako gotzainak eta eleiz-gizonak gobernuaren menpean oso osoan jazarri. Erromako Aita Santuagandik eleiz-lokarri guztiak desegin. Kristau egutegia, urte, aste eta illen izen barriak asmatu. «Arrazoi Jainkosa» Parisko Notre Dame katedralean gurtu eta beste orrenbeste probintzietako Katedraletan egiteko agindu. Olako burugabekeriak ikusita, eleiz-gizon asko iraultzaren aurka jezarten dira. Baita makina bat borondate oneko gizon-emakume be. Ezin ukatu, estremisten asmoa Voltairen ideak jezartea zala, ta ez giza-eskubideak zaintzea. Millaka ta millaka erbesteratuak ta besteak «gillotinara». Compiègneko lekaiame errukarrien martiritza ikusita, edozein konturatzen da, Frantziako iraultzaren elburu ederrenak guztiz ustelduta aurkitzen zirala. An ezgoan ez bardintasunik ez anaitasunik ez askatasunik. «Terrore aldia» deitzen jako bildurikaragarritzko aldi oneri.

Barealdia

Napoleonen denporetan asiko dira eleiztarrak burua jasoten. Oso sonatua izango da Bonapartek egindako diskurtsoa Frantziako Kontseilu Nazionalan: «Nire politika, geiengoen naia betetzen alegindu. Orretarako erriaren borondatea jakin bear da. Vendeeko

gerra, katoliko eginez amaitu izan dot; musulman eginez sartu izan naz Egipton; ultramontano bihurturik irabazi izan ditut italiarren biotzak; judeguen erriren bat gobernauko baneu, berealaxe berai-kiko neuke Salomonen tenplua». Onela egiten eban berba Napoleonek 1800. abuztuaren 16an. Urrango urtean berari komeni jakon «konkordatoa» izenpetuko dau Erromako Aita Santuagaz. Orduntxe asi zan Frantziako Eleiza «katakunbatik» urteten. Baina itzelezko krisialdi eta burruka orren ondorioak XX. gizaldiraino iraungo dabez. 1905. urtean, Eleiza eta Estatuaren separaziñoaz, lortzen dau Frantziako Eleizak bere askatasuna eta erabarritze sakona.

Abisu egokia

Zelan egin leikez ainbeste sarraski eta triskantza Bardintasunaren eta Askatasunaren izenean? «Corruptio optimi, pessima». Robespierren eta beste ainbaten triskantzak, zoritxarrez, larregi probatzen dabe latinezko esaera zaar ori. «Gaurko iraultzaileak, biarko zapaltzaileak» ei dira. Estremisten erruz izaten da geienetan. Origaitik, Frantziako iraultzak ezebazan bere fruturik ederrenak emon. Olako porrotorik harraro gertatu ez daiten, Mitterrand presidentearen abisua egoki dator. Bestela Auschwitz, Goulag edo Tianenmengo sarraskiak ez dira izango azkenengoak.

Frantziako iraultza ta Euskalerrria

Kalte gorriak etorri jakozan Euskalerrriari. Gure erriak ez dautso Frantziako iraultzari inondiko zorrik. Ezta demokrazi maillan be. Gure gizonen bardintasuna eta askatasuna oso aurretikoak dira. Bete betean dauko arrazoia Lino Akesolo jakintsu aundi eta zorrotzak:

«Euskalerrriko legeek, Bizkaiko Foruak, esaterako, gizonaren nortasuna, gizon bakoitzaren eskubideak beste iñongo legek ez bezala aitortzen omen zuten. Inghaterrakoa baiño leenagokoa omen da gure demokrazia.

Aspertu aiñean esan izan da, liberalismoa jaio baiño askoz leenagotik izan zala emen erria, errigizona, nagusi; askatasuna eta

bardintasuna ez zituela gure artera Frantziako iraulketak ekarri. Demokrasi-eredurik ez omen genuen atzerrietan billatu bearrik.

Olako iritziak zabaltzen, elizgizonak ez ziran azken. Emen eta Parisen. Aita Jazinto, Parisko islaria, lekuko. (...) Euskalerrian ez da agertzen talde agintzaille berezirik. Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Gernikako Batzarretan, guztien artean erabakitzen ziran erri-arazoak. Zein ziran an batzarkide erritarrak edo erriak autatuak baizik? Erri bakoitzean ere elizaurretan eta auzoak parte artuz ez ote ziran, geienetan, erriko gorabeerak eztabaidatzen eta erabakiak artzen guztien onerako? Euskalerrian ez da, ez, atzo goizekoa, erriak, auzo guztiak, bere arazoetan parte artzea». (*Lino Akesolo, Idazlan guztiak*, 1171-1172. orr.)

A. Olea